

# ZORROTZ

## morrotz

Zorrotzako aldizkaria · 15. zkia. 2001.eko maiatza



Boiseko ikastola



Etsaiak pasa  
diren festetan

Zorrotza *zek* euskaltegi

# Euskaltegi berria

euskalduntzea bizkortzen

korrika



## Athletic-eko zaletuen taldeak

### Javi Gonzalez eta Zuri Gorri

## Zine Zaharra

BERRI LABURRAK GURE MENDIAK KOMIKIAK

FRANKEO KONZERTATUA  
08/160 ZKA.



MAPFRE

**Auzoan,  
zugandik  
hurbil**

Estibaliz eta Fernando  
Zorrotza Kastrexana Errepidea,1  
Telefono eta Faxe 4419187  
48013 BILBO

# Eguneko Jardueren Zentroa

Azkenean Institutua badabil, asko borrokatu ondoren, errealitate bat bihurtuta. Bestaldetik duela urte batzuk, konturatu ginen gure auzoak ez zeukala gauza, batzuen artean, Zahartzaroarentzako Zentro Integral bat. Hasieran Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarreak inkesta bat egin zuen auzoak zeuzkan beharrek zehazteko. Geroago Taldeko Kordinakundeak eta Auzo Elkarreak bat egin zuten beraiekin erreibindikazioan oinarritzko beharra zelako, guk jaki-


narazi genuena. Egun, Eguneko Jardueren Zentroa errealitate bat izan dadin negoziatzen ari gara. Izan ere, Bilboko Udaleko Ongizate Sailak, Aldundiarekin eta BBkrek batera aurrikusten du Montevideoko Etorbidearen berregituratzeko obrak hasiko direla, orain arte Jubilatuaeren Etxearen Zerbitzuak eta Liburutegia dau- den lekuan.

Dena den berriro jakinarazi nahi dizuegu Zorrotzako hiritar mugimenduaren borrokak fruituak ematen dituela, na-

hiz eta batzuetan guk nahi dugun behar den azkartasunarekin ez, baina argi dago jarraitu behar dugula auzoko biztanleok merezi dugu eta.

Beste ekimen batzuk hasia daude, esaterako espaloia- ren beharrez, Zorrotzako Lorategia, zarat- tak, abiadura eta abar. Betiko moduan horri buruz informazioa jakin ahala emango dizuegu. Besterik gabe agurtzen zaituztegu.

## Agenda



Renfe	902240202
Bilboko FEVE	944232266
Farmakotegia	944416847
Larrialdia, SOS-Deiak	112
Basurtoko Ospitalea	944006099
Gurutzetako Ospit.	946006000
Zorrotzako Ongizatea	4990555
Udal Informazioa	010
Bilboko Udaltzaingoa	092
Posta eta Telegrafoak	4220548
Bilboko Udala	944204200
Anbulatorioa	944990043
Zorrotzako AEK eta Euskal Txokoa	944414920
Posta ta telegrafoak	902197197
Frai Juan Eskola	944420021
Institutua	944393334
Zapiti Landa Eskola	944424875
Batzokia	944997994
Herriko Taberna	944971349



Ez galdu Zorrotz Morrotz aldizkariaren ale zaharrak eskuratzeko aukera. Gure beheko helbidera idatzi eta eskatzea besterik ez duzu egin behar. Arin ibili zeren ale batzuk ia agortuta bait daude!



ZORROTZ MORROTZ Aldizkaria zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Zorrotzako Euskal Txokoa/Zorrotzako Auzo Etxea

Fray Juan 28, 48013 BILBO

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Kodea:.....

Telefona:.....

ZORROTZAKO  
EUSKAL  
TXOKOAK  
BILBOKO  
UDALAREN  
DIRULAGUNTZA  
JASOTZEN DU.



ARGITARATZAILEA: Zorrotzako Euskal Txokoa, Zorrotzako Institutua, 48013 Zorrotza (BILBO). Tel. 944990193. LEGE GORDAILUA: BI-2606-95. HARPIDETZAK: 944414920 Telefonoan edota gure helbidearen bitartez. DISEINUA: Pablo Feo. ERREDAKZIOA: Bittor Rueda, David Tijero, Tomas Angel Gonzalez, Pablo Feo, Iñaki Peña, Aitor Marin, Jon Sanchez. LAGUNTZAILEAK: Serafin Cabrejas, Jose Vicente Mirande, Roberto Dominguez, Manu Cobo, Oskixe.

## Ricardo eta Javier Otxoa txirrindularien istripu larria

Auzokideak izan ziren Ricardo eta Javier Otxoa anaiek otsailaren 15ean Malagako probintzian istripu larria jaso zuten, entrenatzen zeudenean. Haren ondorioz, Ricardo hil egin zen eta Javierrek ArduraTrinkoen unitate batean larritasunetik ateratzen hasia da lerro hauek idazten ditugun unean. Gurasoei *Zorrotz-Morrotz* en erredakzioaren partetik gure doluminak eta desio onenak Javi-errentzako.



## Zorrotzako Eguneko Zentroa

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Bilbao Bizkaia Kutzak Zorrotzan "Eguneko Zentroa" martxan jartzeko hitzarmena sinatu zuten otsailaren Zentroa 2002ko martxoatik aurrera ire-

kiko zuten eta helburua izango zen auzokide edadetu psikogieria zerbitzuak eskaintzea eta baita gizarteratze ekimenak sustatzea ere. 28 pertsonarentzako lekua egokituko dute. Zentroaren kokapena Montevideo etorbideko 121. zenbakian izango da.



## Unai Beaskoetxea auzokidea, atxilotua.

Unai Beaskoetxea Zorrotzako auzokidea eta Haika gazte erakundeko burukide, martxoaren 6an atxilotuta izan zen, gaueko ordu bietan, 16 polizia etxera sartu eta detenitu zuten ETako kide izateko akusaturik.

Baltasar Garzonek Haika "ETA erakunde terroristaren barruan" kokatzen du, eta "ETAren adar bat dela" iritzi dio, nahiz eta Haika erakunde legala izan. Hala ere, Garzonek ez du atxilotu baikoitzaren inputazioei buruz zehaztasunik eman (Unairekin batera beste hamabost gazte atxilotu izan ziren) eta orokorki hitz egiten du.

Unai 22 urte ditu, soziologia ikaslea da eta ikasle mugimenduko partaide, ezker abertzaleko "Batasuna" prozesuan dinamizatzaile gisa aritua da.

## Mundutik hona

# Boiseko Ikastola: bakarra munduan

Bai horixe! Izan be, Boiseko (Idaho-EEBB) ikastola dogu EHTik kanpo munduan dagoan bakarra. Ez Argentinan, ez Venezuelan, ...non eta Estatu Batuetan!



Joan dan urteko urrian Ameriketara ibili nintzan ZORROTZ-MORROTZeko "korrespontsal" legez, eta jarraian han jasotakoa kontatuko deusuet.

Boiseko ikastolako ikasleak



2-5 urtekoak doguz. Hamar hamabost haur guztira. Harrigarria da euren izenak entzutea: Mikel, Joseba, Jill, Celia, Gorka, Alex, Amaia, ... Estatu Batuetan jaiok izanda, aitita-amamak edo gurasoak euskaldunak deukiez (batez be Bizkaiko jatorrizkoak). Hain zuzen be, ikastolaren proiektua gurasoek eurek bultzatuta aurrera atara dabe. (Gero, helduentzako euskarazko gau-eskolak be badeukiez aukeran).

Gurasoek matrikula nahikoa garestia ordaintzen dabe (bai jente diruduna Ida-

hokoa!). Dena den, diru laguntza txikia be jasotzen dabe Eusko Jaurlaritzatik eta Boiseko Euskal Etxe eta Euskal Museotik.

Ikastolak urte bi daroa bidean eta, urtez urte, hamendik aurrera maila guztiak betetzea da helburua.

Zuzendariak Elena dau izena, Estatu Batuetako andra gazte euskaraduna. Izarne, Irurako (Gipuzkoa) neska bat, ikastolako irakasle bakarra dogu. Magisteritza egin barria, Idahorako hegazkina hartu eban "pentsatu barik, itsututa". Igazko otsailan hasi

zan beharrean eta maiatza arte behintzat hantxe izango dogu. Ez dakit luzerako edo!

Zalantza barik, han ikusitako gauzarik politenatarikoa gurasoen kemena eta haurrak euskaraz berba egiten ikustea izan da.

Askotan kanpoan hizkuntza eta kulturagaz ardura handi-agoa hartzen dabe etxean baino. Badogu beste gauza bat ikasteko.



19 urte izan dira leku propio eta finkoril gabe AEK-k euskera irakasten eman dituen urteak. Orain egoitza berria ireki duten honetan, jende berria eta gogo indarberrituak dituzte. Beraiek paratutako zenbait artikulu bildu ditugu erreportai honetan euskaltegiaren gorabeheren islada izateko asmoz.

Neska berri bat heldu da gure auzora, Beatriz Perdiguero (Bea), indar handiz, Zorrotza euskalduntzera. Berarekin batera lau irakaslek egiten dute lan euskaltegian: Patxi, Eider, Idoia eta Saioa. AEK-k beraien esku ipini du euskaltegi berria Zalbidea kalean. Denok gaude gonbidatuta.

**Beharrezkoa zen euskaltegi berria?**

Bai, auzo honetan oso beharrezkoa zen. Orain arteko egoitza oso txikia zen eta ez zegoen talde guztiak egoteko modurik. Talde arteko harremanik ez zegoen, garrantzitsua da ikasleak eroso sentitzea, azpiegitura egokiak: berogailua, liburutegia, bideoteka, komunak, e.a.

**Zenbat ikasle dago euskaltegian?**

70, euskaltegi zaharrean baino gehiago. Urteko matrikulazioak beharrezko joera izan du orokorrean baina Zorrotzan igo egin da.

**Zenbat talde dago euskaltegian?**

Zortzi. 7 euskaltegian eta bestea institutuan.





**Ekintza desberdinak egin ahal ditugu euskaltegian?**

Bai, saiatzen ari gara taldean ikasteaz gain, euskaltegian ipini berri ditugun bideoteka eta liburutegitik, ikasleek liburuak eta bideoak etxera eraman ditzaten.

Gainera, euskaltegi berriak taldeen arteko harremanak egiteko bide ematen du. Jendeak bere artean hitz egin dezake. Jaiak eta ekintza desberdinak egiten dira eta euskaltegitik kanpo ere bai.

**Pentsatzen duzu Zorrotza noizbait euskaldun auzoa izango dela?**

Hau galdera!, nik baietz pentsatu behar dudan arren oso auzo erdalduna da, beraz, hori lan gatza izango da. Dena den, hizkuntza biak dakizkitenak gero eta gehiago dira.

Gure lana euskaldun kopurua handitzen jarraitzea izango da, baina zailagoa izango da erabilpena sustatzea.

**Zer aurkitu duzu auzo honetan?**

Auzo-giroa, jendeak elkar ezagutzen du. Hau gure lanerako ona da. Aukera ematen du kalean lan egiteko; beste gauza berria da, auzoan giza talde desberdinak daudela, dantza taldea, auzo elkarte, euskal txokoa, e.a. Eta euskararen alde zerbait egin nahi dugunean beste taldeen laguntza oso ona eta beharrezkoa da.

**Zerbait gehiago egingo duzue euskaltegitik kanpo euskara sustatzeko?**

Euskal txokoa parte hartzen dugu eta hortik prestatzen diren ekintzetan gure ikasleek parte hartzen dute: asteburupusak, irteerak, tailerrak (aerobica, auto-defentsa, bertsolaritza,...), afariak, antzerkireko irteerak, kontzertuak, poteoak, e.a.

**Badago ikasleentzako subentziorik?**

Matrikularen prezioan Eusko Jaurlaritzaren

subentzioa sartuta dago, oraintxe bertan orduak 160 pta balio du, eta Bilboko Udalak bekak luzatzen dizkie 25 urte baino gutxiago daukatenei eta langabezia daudenei. Bilbon erroldatuta badaude 6.000 pta jasotzen dute gaingidutako urrats bakoitzeko.

Bestalde, administrazioko langileei eta irakasleei matrikula osoa ordaintzen diete eta Bilboko udalak ere seme-alabak B eta D ereduan dituzten gurasoei matrikularen bi heren ordaintzen die. Euskara ikastea merkea da eta, horrezaz gain aukera asko dago are gutxiago ordaintzeko.

**Zenbat urte dira beharrezkoak Euskara ikasteko?**

Ikaslearen arabera eta bere erritmoaren arabera. Ikasle arruntak, neguan baino ez duen ikasten ikasleak, 4 urte inguru behar ditu. Beste ikasle askok ikastaro trinkoak burutzen ditu, hau da, 4 ordu egunean. Horrela

erritmoa askozaz ere arinagoa da. Egokiena barne-tegira joatea izaten da. Han ikasleek beldurra kentzen diote hitz egiteari eta oso ondo moldatzen dira izulitakoan.

**Urte honetan KORRIKA 12 dela eta zer antolatuko duzue euskaltegitik?**

Korrika aurkezpenak egingo ditugu auzo etxean, euskaltegian eta institutuan. Asmoa dago asteburu bat euskaraz antolatzeko: gaiteroak, poteo euskalduna, kontzertua eta kale animazioa. Honetarako auzoko taldeekin ari gara lanean. Oraintxe buru belarri sartu gara KORRIKA 12ren altolaketan. Martxoaren 31an igaroko da Zorrotzatik, iluntzeko 20:00etan edo, ostean afari herrikoia egitea bururatu zaigu. Etorriko zarete?

Hobekuntza taldeetako ikasleek egindako erreportaia



# Piriniotara goaz

Urtarrilaren azken egunetan Euskal Txokoak eta Zorrotzako euskaltegiak Izabarako antolatutako bidai

Guztira 20 bat lagun bildu ginen. Lehenengo helburua Iruñia eta han lehendabiziko arazoa, zein da bide egokia? Non dago N-240 errepidea? Ordubete Iruñian bueltaka ibili ondoren, gizon atsegin lagun bati esker bide zuzena topatu genuen. Ia-ia gaueko hamabiak ziren eta nekatuta eta goseak ginenez, Yesako

urtegiari gelditu ginen afaltzera. Heltzen zitzaizkigun berrien arabera Lintzako aterpetxera iristea ezinezkoa suertatuko zitzaigula elura zela eta. Lintzara heldu aurretik galdu egin ginen berriro ere eta gainera kotxetariko baten gupila lokatzetan trabatu egin zen. Bultza eginez ez genuen ateratzea lortu eta

azkenean gaueko ordu txikietan Izabara ailegatu ginen grua batek hortik atera ostean.

Hurrengo egunean, motxila hartu eta prest mendiari ekiteko baina errepidea gero eta elurtutago zegoen eta ez zegoen hara joaterik. Belagoa aldera joan eta hango aterpetxean banatu ginen bitaldetan, batzuk mendira, eta besteak txango kulturala egiteko asmoz (Gayarrerren mausoleoa, Nekazari museoa eta abar ikusi zituztenok)

Hirugarren egunean eguraldia ez zuen hobetu eta batzuk Txamantxoia igotzen saiatu baziren ere, hurrengo baterako utzi behar izan zuten; besteok Belagoan gelditu ginen fondoko eskia praktikatzeko eta beste batzuk Aretteko pistetara abiatu ziren eskiatzera.



## 2001, Odisea Sagardotegian



Dena hasi zen arratsaldeko 5etan. Egun horretan AEK Txotx delakoa ospatu zen Astigarragan eta ordu horretan autobusa irten zen polikiroldegitik. Zorrotzako ikasle eta irakasleekin autobusa bazegoen ia ia beteta, baina Astigarragara joan baino lehen Bilbotik

pasatu behar ginen Mikoleta euskaltegikoak hartzeko. Baina egun hartan Bilbon, manifestapen handia zegoen eta hori zela eta zenbat eta bi ordu behar izan genuen Zorrotzatik Bilbora heltzeko. Hala ere, hortxe ez ziren arazoak bukatu, autobusean denontzako lekuri ez baitze-

goen. Beraz, gutako lau bolondres jaistea erabaki zuten (ni barne) Zorrotzara bueltatu eta Astigarragara kotxez abiatzeko. Azkenean Zorrotzatik irten ginen gaueko 8etan eta bidai azkar egin onodren Astigarragan azaldu ginen 9ak jo orduko. Baina ordu horetan jende guztia bazegoen prest autobusean sagardotegira joateko.

Sagardotegian sartuta-koan arazoez jarraitu zuten, oztupoak izan genituen lekua aurkitzeko, baina azkenean lortu izan genuen, eta lekua lortu ondoren afaria etorri zitzaigun, makailo tortila, makailua eta txuleta eroak; azkenburuetarako

gazta irasagarrekin eta intxaurrak. Hau dena, nahi zenuen beste sagardo edan genezakeelarik. Horiak dira benetako sagardotegiak!, ez Bizkaikoak bezalakoak, jate-xe hutsak ematen dutenak!

Afaldu eta gero herriko kantei ekin genien eta "Isil-isilik dago", "Loretxo" edo "erribera" bezalako kantekin mailari eusterik izan geniola uste dut.

Gero Astigarragara!, aparteko giroa aurkitu genuen berbena eta guzti. Han eman genuen gau ona laurak arte; gero Zorrotzara itzuli ginen eta horrela bukatu zen AEK Txotx-eko odisea.



# Ttipi-ttapa ttipi-ttapa Korrika

Martxoaren 29an, Korrika 12 Gasteiztik abiatu zen. Lekukoan mezua sartuta, Baionarako bidean jarri zuten lasterketa Antonio Karmona eta Josu Sarriegi Alaveseko jokalariek. Berehala ehunka lagun abiatu ziren korrika.



Milurteko lehenengo Korrikaren leloa "Mundu bat euskarara bildu" izan da. Lelo honekin bat egiten, AEK arduradunen ustez "hizkuntza bat galtzen denean, gainerako guztiak pobregoa bihurtzen dira. Mundua tristeagoa, pobregoa eta grisagoa izango litzateke euskararik gabe, horregatik guk ez dugu gure hizkuntza desagertzen ikusi nahi." Korrika aprobetxatuz, antolatzaileek mezu argia ofizialtasunaren eta haren aldeko sustapen politikoen alde zabaldu zuten: "Euskal Herriak euskara berreskuratu

nahi du, bere hizkuntza gainerakoen parean jarri, eta horrek izena dauka gaur egun eta hemen: ofizialtasuna".

Euskararen aldeko festarik handien eta parte hartzaileena, Zorrotzara heldu zen martxoaren 31an 450km baino gehiago egin eta gero. Beyenan, Kastrexanako ganan, Taldeon kordinakuntzak lehen kilometroa egin ondoren, Athletic zuri-gorri taldeak hartu zuen lekukoa, eta lasterketa Zazpi Landako aldapak jaisten hasi zen. Zazpilanda eskolan, Zorrotzako institutoen esku-

tara heldu zen lekukoa, Feveren geltokiren aurrean Gazte Asanbladakoei uzteko. Hauek, etxebitzak guztiontzak aldarrikapena eta kolore laranja gehitu zioten korrikari. Zorrotza Kastrexana kalean gero eta jende gehiago euskararen alde korrika egiten zegoen eta espaloiak bete ziren korrikalari guztiak animatzeko. Frai Juan kalean, Askabide kultur elkarteak gure auzoko azken km. bete zuen. Lekukoaren ondoan, Unai Beaskoetxea presoaren argazkiak ere korrika egin

zuen. Bederatziak aldera ziren eta Korrika 12 Barakaldora abiatu zen, Zorrotzan giro ezin hobea utziz.

Eta Euskal Herritik zehar 2344 km. Egin ondoren, apirilaren 8an Korrika 12ren edizioa inoiz baino arrakastatsuago amaitu zen Baionan. Euskaldunok euskararen alde aurrera egiteko kemena eta indarra ditugula argi geratu da berriro ere. Korrika badator, badoa, berriz itzultzeko.

## Galdera zuzena

Zer pentsatzen duzu euskaltegi berriari buruz?



**Arantza, 19 urte.** Uste dut beharrezkoa zela euskaltegi berria Zorrotzan. Orain, hemen, denok elkarrekin egon gaitzke eta harremanak eta giroa primerakoak dira. Egoitza handiagoa da eta gauza asko egiteko aukera ematen du: hitzaldiak, bideoak ikusi, jaiak, irteerak eta abar.



**Arantza, 31 urte.** Nahiz eta zaharra ez ezagutu pentsatzen dut euskaltegi berri bat beharrezkoa zela. Orain guztiok elkarrekin egoteko aukera daukagu eta, horregatik, harremanak hobek dira. Euskara ikasteaz gain euskaltegi honetan gauza gehiago egin daitezke: hitzaldiak, jaiak,...



**Miren, 53 urte.** Pentsatzen dut euskaltegi berria beharrezkoa zela. Euskaltegian gauden guztiok elkar ezagutzen dugu, lehen ez banatuta baikeunden. Denon artean gauza asko egin ditzakegu.

# Athleticeko taldeak: Zurigorri eta Javi González

Gure auzoko bi talde hauek Athletic-eko talde ofizialak dira eta "Agrupación de Peñas"-en barnean daude. Estatuan berrehun talde inguru dauzka elkarte honek. Taldean sartuz gero San Mamesen jokatzeko diren partiduetarako sarrerak merkeago eskura daitezke, kanpoko partiduetara joateko aukera ere ematen du. Baina bazkideak elkartzen dira, batez ere, Athletic-ekin harreman estuago edukitzeko asmoz.

Haiei buruz gehiago jakiteko asmoz Zurigorriko ordezkariarekin, Kepa Mayoral eta Javi González taldeko lehendakariarekin, Carlos Katarainekin hizketan egon gara.

Bi talde hauek harreman ona dute haien artean. "Azken finean, guztiok lan berdina dugu. Zorrotzan 5 talde egongo balira, askoz hobea."

Nahiz eta orain emaitza onik ez eduki, argi daukate gauza bat: "Ehuneko chunak Athletic atzerritaririk gabe nahi du." Carlosek, adierazi zigun inkesta bat egin zutela, eta ia jende guztiak zera esan zuten: "Athletic euskal Herri-tik kanpoko jokalaria fitxatuko balitu, gure taldea desagertuko litzateke." Keparen ustez "Garai txarra da hau. Gaur egun erosoagoa da etxean egon, bideojokoe-kin jolasten egunero futboleantrenatzea baino. Horregatik ez dira jokalaria ateratzen, oso sakrifikatua delako ume batentzat. Lehen, ondo pasatzeko, ia bakarrik futbola geneukan."

## ATHLETIC ZURIGORRI TALDEA

Taldea 1995ean sortu zen, baina urte bat lehenago, zuzendaritza batzordekoak biltzen hasi ziren, eta 1996ean ofizialki aurkeztu zen. Egoitza Abaro estartako



Venecia tabernan dute, eta berrehun bazkide inguruk osatzen du taldea. Gehienak Zorrotzakoak dira, baina Bizkaitik kanpokoak ere badaude. Biurtero hauteskundeetan bazkideek aukeratzen dute zuzendaritza



batzordea baina beti inoiz aurkeztu da besteren bat. "Ondo egiten ari garela esan nahiko du honek" dio Kepak.

Ekonomiari dagokionez, taldearen materialaren (pinak, arropak, bufandak...) salmenta bidez ateratzen

duten diruari, bazkide guztioi urtero kobratzen dieten kuotak gehitu behar dizkiogu. 18 urte gorakoek 8.000 pza ordaindu behar dute (5.000 izen-emateko eta 3.000 kuota moduan). 18 urte behekoek, ordea, 3.000 pza, 1.000 izen-emateko eta 2.000 kuota moduan. Urtero, Olentzerok bazkide guztiei opari bat ematen die. "Gure asmoa bazkideek ordaintzen duten dirua berreskura dezatela da" dio Kepak.

Urtero Zorrotzako jaietan putxerak lehiaketa babesten dute. Gainera, jai herrikoi bat antolatzen dute larunbat batean. Jai honetan umeentzako jolasak eskaintzen dute eta txistorra, gazta edo sardinak baso bete ardo batekin dastatzeko aukera ematen digute zorrotzatar guztioi. Zorritzarrez beti euria egin du ospatu diren egun guzti-

etan. "Jai hauekin auzo guztiari erakutsi nahi diogu hor gaudela, eta gauzak egiten ditugula" Urtero bazkari bat egiten dute bazkide guztiek. Aipatzekoa da AEK, Turutarra eta Ibai-Arterekin duten harremana, eta 1999eko korrikan, kilometro bat erosi zuten.

Athleticekin harreman ona izan arren, "Athleticek ez du ematen taldekideei haiek ematen diotena berari, gehien bat Bizkaitik kanpokoak direnek". Ohorezko bazkide hiru ditu taldeak: Julen Guerrero Athleticen kapitaina, Javi González eta Kike Liñero, Lezamako Talde Teknikoaren Arduraduna. Kurioski, Guerrerok gol bat sartzen duen bakoitzean, makailada eder bat oparitzen diote. "Zorritzarrez denboraldi honetan, orain arte, makailu gutxi erosi behar izan dugu."

## JAVI GONZÁLEZ TALDEA.

1997. urtean Basarri tabernako bezero batzuek sortutako talde dugu hau. Zorrotzako jokalaria gutxiak lortu dute Athleticen jolastea, eta horregatik Javi González izena hartu zuten taldearentzat. "Gainera Gurutzetan talde bat sortu zen eta izen berdina hartu nahi zuten, baina jokalaria Zorrotzan nahi zuten bere ize-

## Auzoko taldea



na eramango duen taldea." Batzar bat egin ondoren, konturatu ziren aste batean 60 bazkide izendatu zirela. Urte bat geroago, taldea inauguratu zen. Orain taldeak 212 bazkide ditu, hauetatik ia 60 Zorrotzan bizi ez direnak.

Javirekin harreman oso ona edukitzea lortu dute. "Hainbat taldetan kexatzen dira jokalaria

batzuk, etabar. Zorrotzako enbajadore eder bat dela uste dugu" komentatu zigun Carlosek. Honen kontra esan behar da jokalaria Leioan bizi dela.

Bazkideei kobratzen dieten dirua, materialaren salmentarekin batera, taldea finantzatzeko erabiltzen dute. Batzorde Nagusitik bazkide guztiek taldean parte har dezatela saiatzen dira, partiduetara joaten, bileretara etortzen...

"Edozein bazkidek hitza eta boto dauka, nahiz eta azkenean betikook lan gehiago egiten dugu. Baina hori leku guztietan gertatzen da, eta ezer egiten ez duen kopuru horrek ezin izango du informatuta ez dagoela esan." dio Carlosek. "Gainera, bazkide guztiei gutunak bidali behar dizkiegu, batzuk

Zorrotzatik kanpokoak dira eta."

Aktibitate ugari antolatzen dituzte. Urtero "León para siempre" saria ematen dute. Aurten, Athleticeko betaranoentzat izan da. Gainera, Lezaman ospatzen dute Javi Gonzalezen urtebetetzea, jokalaria tartar bat eramaten. Zorrotzan, jaietan makailu txapelketa babesteaz gain, 1999eko korrikan, kilometro bat erosi zuten. Athleticen jokatu duen futbol-zelai guztietan taldearen ikurra egon da. "Sortu ginenean, gure helburua, Zorrotza eta taldearen izena leku guztietan egon zedila zen. Eta esan dezakegu, agian lortu dugula, Zorrotzatik kanpoko jende asko etorri baitzaigu apuntatzeko asmoz, gure izena entzunda zeukalako leku askotan, gauza asko egiteagatik. Etorkizunerako priktuen artean, Javi Gonzálezek gola bat sartzen duen guztietan, zuhaitz bat landatzeaz gain, ume bat apadrinatzea nahi dute.

Klubarekin harreman ona dute haien ustez Athletic taldeari asko ematen diotelako. "Astun hutsak gara. Beti gaude kluba zorabiatzen, baina esan behar dugu Athleticen primerran portatu dela dela gurekin". Ohorezko bazkideen artean, J. Guerrero, Edu Alonso, Carlos Acero eta Jose Maria Arrate Athleticen lehendakaria aipatzekoak dira.



egoitzatik ez dela pasatzen. Guk ezin dugu hori esan, guztiz kontrakoa baizik. Lesionatuta dagoenean, egunero telefonoz deitzen diogu; eskatzen diogun guztietan; hemen agertzen da; bere etxean hartu ditu bazkide



Akatsak zuzenduz

Azken zenbakiko atal honetan Zorrotza saskibaloitaldeari egindako erreportaian oker zoritzar bat izan genuen. Danirekin batera taldea eraman zuten Javi Vaca eta Joxe Pradaren argazki agertu behar ziren laukitxo batean. Baina, Pradaren argazkiren ordez, Dani berriro agertzen zen.

Barkamena eskatzen dugu bere oroimenari eskeinita zegoen erreportaian (pasa den urtean sendu zen) oker hain handia edukitzeagatik.



## Gure kaleak



Zazpi Landa ikastetxearen ondoan eta "Solucion Sur" gainean dagoen etxe multzoa da. Pinadia izenak Acha familiak bertan zeukan pinadia ekartzen digu burura.



ARDURADUN OHIARI ELKARRIZKETA

## Zorrotzako zinea

Zorroztar askok gogoratzen ez badute ere, eta beste askok, gazteegiak direla eta, ezagutu ere ez duten arren, oso zine berezia izan zen auzoan duela hamarkada pare bat arte. Zine horren xehetasunak eta han, urteetan zehar, gertatutako pasadizorik bitxienetariko batzuek luzaroan mintzo izan ginen zineko arduradun ohiarekin, Jose Luis, berak dioen legez, abizena galdu duten munduko lagun bakarra, auzoan bere izengoitiz solik ezaguna baita, Jose Luis "el del cine". Elkarrizketa "Garoa" tabernan egin zen, antzinean zinea zetzan lekuan bertan.



### ZORROTZ-MORROTZ: Hasteko Jose Luis, esango diguzu zenbat urte irekita egon zen zinea?

Jose Luis: Nik neuk parte hartu nuen zinearen inaugurazioan 1956. urtean eta han izan nintzen ateak itxi izan arte 1974. urtean gutxi gorabehera. Zine hori Jose Maria Canaren proiektua zen Bilboko zezen plaza egilearena eta egia esan oso ondo eginda zegoen, oraingoak baino askoz handiagoa zen, Zorroza izenekoa, hirurehun bat besaulki zeukan, lerroak gorantz banatuta aurrekoek atzekoei ikusteko

arazorik sor ez ziezaieten eta ez zeuden zutaberik besaulkien artean; oso diseinu modernoa zuen. Hain handia zenez bereak eta bi egin behar genituen neguko egunetan berotzeko eta horretarako egurra erabiltzen genuen berogailuan. Honetaz aparte pantaila ikaragarri handia zen hamabi metrotako luzera eta ia bost metrotako altueraduna, beharrezkoa garai hartako Cinemascopez egindako pelikulak ondo ikusi ahal izan zitezien. Oso negozio onuragarria izan zen 70ko hamarkada arte, zaletasun berriek, 600 kotxearen agerpenak eta batez ere telebistak kalte izugarria eragin zizkiguten, zineen krisialdi ospetsua gertatu zen eta horren eraginez Zorrotzako zineak itxi egin behar izan zuen. Zuzendaritzak aukera ona ikusi zuen zineak okupatzen zuen eremua saltzeko eta halaxe egin zuten; zinea eraitsi egin zen eraikin berri hauek egiteko.


### Azalduko diguzu zeintzuk ziren zure betebeharrak zinean?

Beno, nik honetaz aparte Bizkaiko beste berrogeitahamabi zinetako arduraduna nintzen. Trueba delako enpresan lan egiten nuen eta jasotzen genituen filmak Bizkaia osoan zehar banatzeari ekiten nion beste lan batzuen artean. Sarritan arazoak izaten genituen banatzailearekin pelikula sorta erosi behar genituelako eta sortan haietan pelikula bat edo bi onak baziren ere besteak zakurraren putza ziren; gainera Bilboko

zineek pelikulak hobeak jasotzen zituzten herrietakoak baino eta Zorrotzako herrikotzat hartua zen behin eta berriro liskarrak sortzen zirena. Herrietara heltzen ziren pelikulak hirietan jada ikusitakoak ziren eta nahiko zahartuta zeuden, zikinduta eta erdi apurtuta. Hasieratik nik zerbait ezberdina egin nahi izan nuen zine hartan. Urte haietan Bilboko zenbait zinetan koadrila bihurri pila bat izaten ziren eta beti istilutan zebiltzan zinera sartzen ziren bakoitzean, batzuetan oihuka, beste batzuetan korrika edo beste ikusleak molestatzeko eta nik hori ez nuen baimentzen Zorrotzan. Beste alde batetik zinea baino zerbait gehiago eskaintzen saiatzen nintzen eta etsipenez gogoratzen dut, esate baterako, antolatu genuen Mucedades taldeak emaniko kontzertua, arrakasta hutsa izan zen. Ahal nuenean umeentzako pelikulak ekartzen saiatzen nintzen haiek ere zinea gozatu ahal izan zezaten baina ez zen oso erraza banatzaileak potere osoa zeukalako eta nik langile hutsa besterik ez nintzelako.

### Eta zirrara handia sortarazi zuen pelikularen bat?

Beno, nik normalean pelikula hasi eta berehala joaten nintzen ahal nintzen bakoitzean baina bai, oso arrakastasuak ziren Lola Flores, Sara Montiel edo horiek bezalako aktorearenak eta nola ez Mendebaldekoak ere bai. Baina zenbait pelikulekin arazo handiak izaten



genituen zentsura zela eta, Madriletik etortzen zena eta gero hemen pairatzen genuena, Zorrotzan, herrizat hartua zenez behin baino gehiagotan ez ziguten eszena bat ematen utzi Bilbon adibidez ikusterik zuena, herriko konszientzia prestatuta ez bailegoan edo holako txorakeriekin esanda eta noski!, pelikula, leku guztietatik moztuta, ez zegoen ulertzerik; Francoren eragina edonon aurkitzen zen eta zinea ez zen salbuespena izan. Oso farregarria izan zen zentsuratzailearen armairua ireki nuen egunean, hantxe aurkitu nuen zentsuratutako eszena guztiak lotuta biribildu bakar batean, hau da hau, dena bere gozamenerako.

**Zer gerta zekizuekeen zentsuratutako eszena ematekotan?**

Ezer ez egia esan, gainera ezinezkoa izango zen filme bat gurera heldu aurretik zentsuratzaileen eskuetatik pasatzen zirelako eta nahi zuen beste kentzeko ahalmena zeukan. Nire ugazabak falangista hutsak ziren eta inposatutako poterearekin harreman estua zeukaten, Calahorrako gotzainarekin, Gobernadore zibilarekin eta abar. Goardia zibil pila bat etortzen ziren eta plaka erakutsiz edozein lekutara sartu ahal baziren ere, nik beti uko egin izan nion hori onartzerari eta esan dezaket hauxe izan zela Espainiako zine bakarra non goardia zibilek, grisek eta abarrek ordaindu behar izan zuten. Istilu ugari eduki izan nuen debalde sartu nahi izan zuten polizi batzuekin baina azken finean ordaindu, ordaindu egiten zuten. Garai hartan arriskutsua izan zitekeen horrela jokatzeari, zerrenda beltzaren batean sar zintezkeelako baina beno, mehatxuak eta guzti jaso izan nituen baina niri bost. Askotan ere poliziak etortzen ziren sartzen zen jendea kontrolatzeko, beti guri exigituz publikoari karneta eskatu izana eta horrelakorik.

**Eta zinearen munduan bizitza osoan zehar hain ibilitako gizona izanda, zein da zure filmerik gogokoena?**

Uf!, zer esango dizut, ba?, pelikularik gogokoena ez dakit baina bai gorrotatzen dudana bat esango dizut "Lo que el viento se llevo", benetan jasangaitza, beharbada hogeita hamar aldiz baino gehiago ikusi behar izan nuelako.

**1 Zein zinearen ezaugarri gogoratzen duzu gehien?**

**2 Zure ustez, zergatik zerratu zen?**

**3 Gogoratzen al duzu han ikusitako filmeren bat?**

**OBDULIA**

- 1 Oraingoak baino askoz handiagoa zela.
- 2 Ez dakit; umetxo bat nintzela irekita gogoratzen dut jada eta ez nizuke jakingo esaten noiz zerratu zuten Zorrotzatik at bizi izan bainaiz urte batzuetan. Etxe berriak eraiki behar izan zituztelako.
- 3 Ez, ez dut han ikusitako filmerik, hori bai uste dut hamabi pezeta baino ez zuela balio sarrera.



**PROTASIO**



- 1 Nahiko zine jatorra zen; ehundik gorako ikusleentzako lekua bazegoen.
- 2 Seguruaski errentagarria ez zelako, telebista dela eta zine pila bat kendu izan dira azken urte hauetan; non eta Lutxanan bi zine zeukaten duela ez urte asko!!
- 3 Tituluak ez dakit baina batez ere Western-ak ikusten nituen.

**JOSE LUIS**

- 1 Gehien gogoratzen dudana da 200 kiloko emakume batentzat zegoen aulki bikoitza.
- 2 Ba, telebistaren erruagatik, kalte handiak egin du.
- 3 Adibidez, "Lanza Rota", "Kantxa Baska"...



**ANDONI**



- 1 Oso handia zen eta butakak malda handiko aldapan banatuta zeuden.
- 2 Telebista izan da erruduna nire ustez.
- 3 Filmeak ez ditut gogoratzen, bai, ordea, zenbat pagatzen nuen, hogerleko besterik ez. Mucedades taldearen kontzertu bat ere gogoratzen dut.

**ROSARIO**

- 1 Oso handia eta jatorra zen, eskailerekin gorantz hobeto ikusi ahal izan zedin.
- 2 Ez dakit noiz ireki zen, baina bai itxi zenean, duela hogeita hamar urte edo.
- 3 Julio Iglesiasen "La Vida Sigue Igual".



**ESPERANZA**



- 1 Oso zine handia zen, butakekin gorantz jarrita.
- 2 Eraikin berria egiteko.
- 3 Zapatuero "Cine de Barrio" saioan ikusterik ditugunak, Marisolena, Rocío Durcalena eta abar.

# Etsaiak taldea auzoko festetan



## Z-M: Zorrotzako jaixetara etorten zareten zeuen lehendabiziko aldia da?

E: Bai, bai ez genuen gainera ezagutzen auzo hau beti pasatuz autopistatik, Zorrotza ikusi dugu hor karretetan baina gaur lehenengo aldiz da egoten garela.

## Nola mugitzen zarete kontzertu batetik bestera?

Ah, hemen daukagu trastu hau (furgoneta) eta hori da. Balio asko dau furgoneta zahar batek eta lehenengo kontzertura joan ginenean erre genuen motorra, motorra aldatu eta gaur arte. Honen bitartez leku guztietara heldu gara.

## Entseiatzeko non eta nola?

Baserrian, bizi gara baserri batean eta daukagu korta lehenago baten behiak edukitzeko eta konpondu dugu. Hor egunero, gaude jo eta fuego. Gainera inguruko andra guztiak gure lagunak dira. Hango baserriarrak egunero gugaz bazilatzen.

## Zuzena da orduan, baserria?

Bai han bizi gara. Adibidez aurten jaietan jo genduen bertan lehenengo kontzertua. Auzoko andrak eta guraso guztiak hor inguruan flipatzen.

## Errazagoa deukozue Bilboko auzo baten jaixetan jotzea Aste Nagusian baino?

Noski, Aste Nagusian deitzen digute txoznetatik eta holan bebai. Bueno hori egia esanez errazagoa baina "Plaza Del Gas" eta horrelakoetan egoten da mafia bat eta beti joaten da jende berdina eta alderantziz hemendik inguruan ba

auzoetan asko jotzen dogu. Bestaldetik orain gutxi egon gara Trapagan, Galdakaon. Gero euskaltegitik ere deitzen digute. Hori ondo dago. Askotan nahiz eta diru gutxi izan esaten dugu merezi duela. Kasu honetan euskeragatik.

## Lekittotik ikusita, zelan ikusten dozuez Bilbon dabilzan bandak?

Harreman handia daukagu hemengo talde pare bategaz, bertan bizi dira batzuk, nahiko kaineroak. Lagunak dira adibidez "Idi Bihotz". Ez dute egiten guk bezalako musika. Egia esan nik uste dut momento honetan "Platero y Yo" kenduta ez daude Bilbon talde arrakastatsuak.

## Euskadin "Rokanrola" k dirua inoiz emanen du?

Hori da galdera historikoa. Egia esanez gagoz hemen 8 edo 9 lagun borrokan astero eta ezin dezakegu esan aberastuko garenik, baina behintzat gagoz orain oreka

bat topatzen gure bizitzan musikaren bitartez. Eta hori da. Esan dezakegu egunero egiten baduzu lan, astero profesionalki bultzatuz taldea, ahal duzuna behintzat, jan eta bizitzeko zer edo zer ematen dizu.

## Hurrengo batean zer egingo duzue? ( asmoak)

Hainbeste gauza, betiko lez. Bueno Inigitok diska bat ateratuko du, bere lehenengo diska bakardadean "Txapel Punk". Gu gaude pixka bat zain. Berak diska atera ondoren gu geldituko gara beste diska bat prestatzeko. Beraz gaude aukera batzuei zabaldua. Orduan ikusten dugu egunero musikarekin sartuta gaudela zer edo zer egin dezakezula. Gure bizitza musika da.

## Zergatik banatzen zarete disko berriak sortzeko?

Hori da gero bakoitzak bere gustua du. Hori errespikatzen onena askotan

izaten da berak nahi duena egitea. Eta hori adibidez Keuk hori egin dau. Nik uste dut oso konpositore ona dela. Beste maila batzuetan egiten dau musika. Igual lasai entzuteko etxean. Beste estiloa. Baita Inigitorekin antzekoa gertatzen da. Bera da Superpunkia.

## Euskaditik kanpo zer nolako harrera izaten duzue?

Ezin gara kexatu. Egia esan pena da estatuan, euskeraz, ez daukazu harrera handia jotzeko baina gu adibidez Madrilera Bartzelonara goazenean fenomeno! Igual hemen baino gehiago esan dezakegu. Jendea egoten da entzuteko desiratzen. Asko ez gara joaten kanpora, orduan joaten garenean hor dauden jarraitzaile guztiak joaten dira. Orain adibidez Asturias-era goaz, bebai Kanarias-era edo Galizia-ra. Kanpoan oso esperientzia ona izan dugu, ez? Latinoamerikan be sinestezina. Joatea bertara eta ikusten da ehundaka eta ehundaka gazte gugaz dantzatan. Mexikon adibidez abestiak ezagutu, diska. Gero Kuban azkenean, itzela, jendea kriston animazioagaz.

## Posible balitz nola sailkatuko zenukete zuen musika?

UFF, bueno azkarra, berritza eta zuzena. Eta bebai bihotzez egindako musika. Esan ezakegu agian gure bihotza azkarragoa doala. Beraz gure musika bebai.



# Zorrotza – Zorrotza

Zorrotza inguru guztiak (gehienak) ezagutu doguz, apurka apurka azken Zorrotz morrotzetan. Zeozer esango dozku hori. Gorputze ohiturik dogula ta auzotik ateratzeko garaia heldu jakule.

Denbora – 10 h 30  
Desnibela – 2000 m  
Oharra – Trabesiak ez deko sailtasun larrerik baina luzea da, ordun jana ta edana croango dogu.


Ba kanpora begiratu baino lehen “ibilbidetxo” bat ikusiko dogu ale hontan.

Goiz goizetik aterako gara Pagasarri. (673 m.) mendirantza ezagutzen dogun

bidetik. Tipi tapa, tipi tapa, Ganekogorta (998 m) pasa ta Gailarraga (862 m) igarota dana berantza (oraindik erreza eh) Zaldupeartino. Kadagua ibaia pasata Eretzarako bidez

topatuko dogu (ostantzian galdetu) eta dena gora, Lejarza auzoa igaro, arbori zabalitik tontorreraino (871 m). Beno orain errezena, Saratxotik pasatuko gara Apuko

(559 m) menditxoa egiteko asmoz. Orain Sasiburu mendilerroa segituz Arroletza (459 m) mendira eta joño, etxean gagoz. (ia ia). Ez da gauza makala egin dogune.



## Xanonen pasadizoak

# Xanon Afrikara doa (III)

Menesci-ra heldu ginen bidaia luze bat burutu ondoren. Hortik sartzen zen. Ni taldearekin hasieratik zalanztati nengoen. Haiek fidagaiztasunez ikusten zuten arabiar kutsu zeukan guztiak.

Nire ustean aurriritziak ziren, besterik ez. Hala eta guztiz ere egia da,aldi berean, arabiarrek zorutzen zirelan gure taldeko emakumeekin. Begiradak ezin esanguratsuak ziren. Begiratu baino gehiago biluzten zituzten gure neska ederrak. Irensten zituzten.

Nik hori ikusirik ulertzen nuen beraien mesfidantza. Hala ere ez zen ezer gertatu. Beldurra baino ez.

Gauaren erdian taxi bat hartu genuen. Mercedes bat, bere izena bezain zaharra zen

zegokigun kotxea. Bidaian zehar ematen zuen apurtuko zela mila zatitan banatuta. Abiatzerakoan idi pare bat baino geldoagoa zebilen. Nik pentsatzen nuen atea ere eroriko zirela. Zorte ona izan genuen hori ahazteko,zeren eta gidaria izugarri atsegina baitzen. Basamortua zeharkatuz geroztik hotelera heldu ginen goizeko hirurretan.

Benetan toki itzala hotel hori, terrorezko pelikula batean agertzen direnak bezalakoa. Hurrengo egunean azalpen batzuk emanda beste hotel batera abiatu ginen. Aitortu behar dut kezka izugarria geneukala. Ni alde batetik bat nentorren taldekideekin gaua beldurgarria iruditzen zitzaidalako.

Horretaz gain Ramadana ospatzen zuten eta etxe guztietan argiak pixtuta zeuden. Jende guztia kalean zegoen, abuztua zen eta gu beldurraren pean geunden.

Asko kostata lo egin genuen eta hurrengo egunean Kerkenaleko irlak ikustera joan ginen leku hori aukeratu baikenuen oporrak pasatzeko.

Gure taldean eztabaidak agertu ziren. Berriro emakumeen kontua. Egia esan Josephinaren kasuan, begi guztiak bere gainean jarrita zeudela bere gorputz lerdinari erantsiak. Leku guztietan arabiarrek hur-

biltzen zitzaizkion berari, ahal zuten neurrian, beraien begiradek sua eta grina isladatzen zuten. Esan genezake gutxigatik ez ziotela zirri egiten.

Une berezi hartan lagun baten presentzia somatu genuen. Berari esker gero gure eztabaidan nik irabaziko nuke. Honek bere jarrerarekin erakutsi zuen arabiarrek ere nahiez gain beste ezaugarri onak dituztela.





# Okupazioaren aldeko eguna



Pasa den Urtarrilak 27an, okupazioaren aldeko Gazte Eguna ospatu genuen.

Goizean zehar giro ederra sortu genuen auzoan. Poteo eta txalaparta jotzeaz

gain, bazkari bat egin genuen. Jai honen barruan, udalak eta etxegintza enpresa batek botako duten Zorrotza Kastrexanako 30. zenbakiko etxea okupatu genuen. Nahiz eta sinbolikoki izan, auzoaren aurrean argi utzi genuen gure jarrera etxebitzaren arazoari aurre egiteko.

Hamabietan etxera sartu ginen, eta okupazioaren aldeko eta extebizitzak guztiontzat eskatzen zituzten pankartak eskegi genituen. Geroago mural bat egin genuen, azalpen liburukiak auzotik zehar banatzen genituen bitartean eta txalapartaren soinuak auzoko jendearen arreta deitzen zuen artean. Egitaraua jarraituz, auzotik poteoaren ondoren, bazkari batekin bukatutzat jo genuen gazte eguna.

Zerk bultzatzen gaitu halako ekintzak egitera? Etxe-

bizitza batek daukan salneurri milionariari heltzea ezinezkoa egiten zaigu gazteoi. Gure lan baldintzek ez gaituzte uzten banketxeko mailegu bat eskuratzen, gure bizitza 40 urterako gutxienez hipotekatzuten: gure soldatak baxuak baitira, sarritan ETT baten esklabutzapean aritu behar baitigu edo soilki, langabezian egon. Non dago etxebizitza duin bat eskuratzeke eskubidea?

Egoera honen aurrean, etxegintza enpresario batek Bilboko udalarekin batera be-

rehalako etxe honen botatzearekin etorri zitzaigun, aisialdi gune bat egiteko asmoz. Ezinhobea iruditzen zaigu gune horiek eskaintzea, baina ez errekurtsorik gabeko jendea bizi dadin edo gaztetxerako erabilia izan daitezkeen etxeak botatzearen truke.

ZGako partaideok ezin ginen geldirik geratu, eta mobilizazio hura prestatu genuen, argi utziz, espekulaziari aurre egiten, okupazioa errealitate bihurtu daitekeela Zorrotzan.

## Txoko Historikoak gero arte

Aurreko zenbakian galdetzen genizuen ea zer zen argazkian agertzen zena edota zer dagoen gaur egun toki hortan. Argi dago argazkian apurtxu bat erreparatu ezkerro igerri ahal dela bere kokagunea, hau da, gaur egun ezagutzen dugun anbulategian zegoen etxea dela. Holan asmatu du Blanca Iturratek eta horregatik argazki hori handitu eta marko polit baten ipinita opari egin diogu.

Zenbaki honetan ez duzue igerri beharreko argazkirik topatuko, gure biltegia agorturik dago eta. Halan ta be hurrengo zenbakirako antzinako argazki zoragarri gehiago topatzen saiatuko gara, zuk zeuk baldin badituzu edota ezagutzen baduzu badituen inor, gugana bidali egizu zorrotzar guztiek gure aintzinako txokoak ezagutu ditzaten.



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

ZORROTZAKO BULEGOA  
ASTILLERO, 9  
TF. 427 48 45 - 417 88 33



**Beste jolas polit bat Erderazko "Pasi Misi" bezalako da.**

Besoak altxata eta eskutik heldurik zubia osatuko dute bi haurren artean. Beste haurrak sorbaldatik helduta, ilaran, zubi azpitik pasatzen hasiko dira abes-tia kantatuz. Hau bukatzerakoan zubi parean geratzen den haurra harrapatuko dute besoen artean eta zubikoek (joko hasieran izen identifikagarri bat ezarriko diote euren buruei) isilean galdetuko diote: Zer nahi duzu?, txokolatea ala porrupatakat? Aukeraren arabera txokolatearen edo porru-pata-taren taldea osatzen joango dira zubikoen atzean jarriz. Ilaran haurrik geratzen ez denean bi taldeetako haurrak euren aldera hasiko dira tiraka bestea mugiarazteko.

Bere tokiz kanpo geratzen den taldea galtzaile izango da.

**ZUBIRI – ZUBIRI**

Zubiri-zubiri,  
nongori, nongori,  
nongo alkate zerade (zara zu)?  
Frantziako erregearen seme-alabak gerade (gara gu).  
Zubi honetatik pasatzen dena  
hemen geldituko dela,  
hemen geldituko dela!

**"Eta emakumeari sugeak esan zion"**

Lourdes Oñederra  
Erein argitaletxea.  
184 orrialde.

Aldizkaria hainbat literatura sari irabazi dauan liburu hau aipatu barik ez neban laga gura.

Lourdes Oñederraren lan intimista honek barne mundu batetik eroaten gaitu, eta ziur nago momentu batzuetan gutariko askok geure burua islatuta ikusiko dogula. Azken finean, bikote harremani buruzko nobela da, eta (ia) danok horren esperientzia badogu.

Hala ere, nire ustez, andra honen liburuaren arrakasta datza deukon erritmoan, bizitasunean,... Elebarria



baino diarioa dala emoten dau eta! Zalanta barik, ez jatzue bape zaila irakurtzekoa suertatuko (beti kontuan hartzeko gauza bat, ezta?).

Amaitzeko, Oñederraren keinuen artean, bat azpimarratuko dot; beste hizkuntz batzuek egiten dauzan jolasak: italieraz, ingelesagaz, gaztelagaz,... Aberasgarria benetan. On egin!

**Dub-Manifest**

Udazkena hasi besterik ez denean eta abenduko durangoko azokari begira Fermin Muguruzak Dub-Manifest-ekin batera bigarren diskoa kaleratu berri du. lan honetan, aurrenekoarekin hasitako bideetan jarraitu eta sakondu ditu, sekulako erritmo desberdineko fusioa sortuz, oso abeslari gutxi duten maisutasunarekin. Disko honetan azken hamarkadako erritmo berri garrantzitsuenak biltzen dira, esate baterako ingalaterara heldutako etorkin jamaitarrek sortutako dub-en egiturak erabiliz betiko reggae edo ska estiloein nahastuz, dena oinarri elektronikoak euskarri gisan. Seguruas-



ki muguruzak inoiz egindako diskorik kosmopoliteena mundu osoaren ekarpenez eraikitutakoa eta zuzenean bere benetako maila erakusten dutenekoa. Arretaz entzun beharko da artez aniekin kolaborazioa txalaparta soinu zaharra drum&bass-ekin nahastuz, ikaragarria.



Serafin Cabrejas2000

# Mila urte igarota ura bere bidean!



## Farmakotegia

BELEN SUSTATXA LIZENTZIATUA

ZORROTZA KASTREXANA 23  
4416847 TELEFONOA  
48013 BILBO

EPS ODR 89/97